

LEHEN URRATSA

EBALUAZIO FROGA

IRAKASLEAREN GIDA

AHOZKO ULERMENA / ENTZUMENA

1. HELBURUA- Eguneroko behar simple eta zehatzekin zerikusi duten adierazpenak uler ditzake, argi esaten badizkiote, poliki eta behin baino gehiagotan.

6. HELBURUA- Gertaera labur baten kontaketa uler dezake, ezagunak diren hitzak eta oinarrizko esamoldeak erabiltzen badira eta keinuz laguntzen bada.

1. JARDUERA

Irakasleak adierazitako gertaera hauei Egia ala Gezurra erantzungo dio ikasleak:

Irakasleak poliki, argi eta behin baino gehiagotan errepikatuko ditu esaldiak, ikasleak Egia ala Gezurra esango du:

- Gaur goizean zazpi eta erdietan jaiki zara.
- Jaiki ondoren, garbitu eta jantzi egin zara.
- Logela txukundu eta motxila prestatu duzu.
- Gosaltzeko babarrunak jan dituzu.
- Etiket irten eta oinez etorri zara institutura.
- Zaldi bat ikusi duzu bidean.
- Bakarrik etorri zara instituturaino eta zortzietarako iritsi zara.
- Lehen orduan Matematikako eskola izan duzu.

Gezurra bada, ikasleak gaizki emandako datua zuzenduko du.

HELBURUA 4.- Zenbakiak, salneurriak eta orduak uler ditzake.

2. JARDUERA

Irakasleak ahoz emandako datuak (Zenbakiak eta Orduak) jasoko ditu ikasleak:

- Goizeko hamarrek eta hogeian autobusa geltokira iritsi da.
- Autobus-gidariak 245 euro eta 68 zentimo zituen kaxan.
- Arratsaldeko bostak laurden gutxietan alkatea udaletxean sartu da.
- Postariak 1.872 euro sartu ditu banketxean.
- Idazkaritza bederatzietan irekitzen dute.
- Ikastaroaren matrikulak 250 euro balio ditu.

Ikasleak, jasotako datuekin, galdera hauei erantzungo die:

-Zer ordutan irekitzen dute idazkaritza?

- Bostetan
- Lauretan
- Bederatzietan

-Zenbat euro sartu ditu postariak banketxean?

- Mila eta bostehun
- Mila zortziehun eta hirurogeita hamabi
- Mila laurehun eta hirurogeita bi

-Zenbat diru zuen autobus-gidariak kaxan?

- Berrehun eta berrogeita bost euro eta hirurogeita zortzi zentimo
- Ehun eta laurogeita bost euro eta laurogeita zazpi zentimo
- Bostehun eta berrogeita bi euro eta berrogeita bost zentimo

-Zer ordutan iritsi da autobusa geltokira?

- Bost eta erdietan
- Seiak laurden gutxiagotan
- Hamarrak eta hogeian

-Zenbat balio du ikastaroaren matrikulak?

- Hirurehun eta berrogei euro
- Berrehun eta hirurogei euro
- Berrehun eta berrogeita hamar euro

-Zer ordutan sartu da alkatea udaletxean?

- Bostetan
- Laurak eta laurdenean
- Bostak laurden gutxiagotan

HELBURUA 2.- Ahozko testu motel eta artikulatua jarrai dezake, geldiune luzeak dituena esanahia ulertu ahal izateko.

HELBURUA 5.- Deskribapen labur bat uler dezake, ezagunak diren hitzak eta oinarritzko esamoldeak erabiltzen badira eta keinuz laguntzen bada.

3. JARDUERA

Irakasleak ahozko deskribapen hauek egingo ditu; ondoren, ikasleak galderak erantzungo ditu:

Animalia Ornodunak

Animalia ornodunek bizkarrezurra dute. Hezurrezko edo kartilagozko barne-eskeletoa dute.

Animalia ornodunak bost sailletakoak dira: arrainak, anfibioak, narrastiak, hegaztiak eta ugaztunak.

Arrainak uretakoak dira denak. Gorputz luzea eta ezkatatuz estalia dute. Arrainen adibide gisa aipatutako ditugu: marrazoa eta amuarraina.

Anfibioak: "anfibio" hitzak "bi bizitza" esan nahi du; lehorrean eta uretan bizi direlako. Anfibioak dira igela eta apoa.

Narrastiak: gehienak lehorrekoak dira. Larruazal lehorra eta ezkatatuz estalia dute. Narrastiak dira dortokak, muskerrak eta sugeak.

Hegaztiak hegan egiten duten animaliak dira. Gorputza lumaz estalita dute eta hortz-gabeak dira, mokodunak.

Ugaztunak, gehienak lehorrekoak dira. Biriketarik hartzen dute arnasa eta umeak amaren gorputz barruan garatzen dira. Ugaztunak dira balea, katua eta gizona.

Ikasleak apunteak hartuko ditu zerrenda honen laguntzaz:

Animalia Ornodunak

1.- Arrainak

2.- Anfibioak

3.- Narrastiak

4.- Hegaztiak

5.- Ugaztunak

Ikasleak galdera hauek erantzungo ditu:

Zein animalia daude ezkatatuz beteak?

- Hegaztiak*
- Anfibioak*
- Arrainak*


Zein dira animalia mokodunak?

- Narrastiak*
- Hegaztiak*
- Ugaztunak*

Anfibioak dira:

- Dortoka eta igela*
- Apoa eta igela*
- Oiloa eta marrazoa*

Ikasleak testu honen kontzeptu mapa osatuko du



AHOZKO ADIERAZPENA / MINTZAMENA

1. HELBURUA- Datu pertsonalak eman ditzake.

4. JARDUERA

Elkarrizketa batean irakasleak ikaslearen datu pertsonalei buruzko zenbait galdera egingo dizkio:

- Non jaio zinen?
- Zein da zure jaiotze data?
- Zein da zure gurasoen izena?
- Zein da zure helbidea?
- Zenbat anaia-arreba dituzu?
- Zein dira zure zaletasunak?

2. HELBURUA- Informazioa eska dezake.

5. JARDUERA

Ikasleak gai hauei buruzko galderak egingo dizkio irakasleari. Lortutako informazioa idatziz jasoz.

Lor ezazu informazioa hau irakasleari galderak eginez:

Irakaslearen bizilekua.
Irakasleak seme-alabak dituen.
Irakaslearen zaletasunak.
Ikastetxeko irakasleen kopurua.

3. HELBURUA Adostasuna/ Ezadostasuna adieraz dezake.

4.HELBURUA Erantzun laburrak eman ditzake.

6. JARDUERA

Elkarrizketan irakasleak iritzia eta erantzun laburrak eskatuko dizkio ikasleari:

- *Zer egiten duzu eskolatik irten eta gero?*
- *Zer egiten dute herriko gazteek aisialdian?*
- *Herriko gazteek badute tokirik aisialdirako? Zein toki?*
- *Nahikoa da gazteen aisialdirako?*
- *Zer falta da?*
- *Batzuk uste dute alkohola edan behar dela ondo pasatzeko. Iritzi berekoa zara? Zergatik?*

IDATZIZKO ULERMENA / IRAKURMENA

1. HELBURUA- Informazio testu eta deskribapen sinpleen ideia nagusia uler dezake, batez ere testua azaltzen laguntzen duten irudiak baditu.

3. HELBURUA- Izen ezagunak eta hitz eta esamolde oso sinpleak ezagut ditzake, iragarki sinpleetan eta eguneroko egoera arruntetan.

7. JARDUERA

Ikasleak, testua irakurri ondoren, testuari buruzko galderak erantzungo ditu:

INAUTERIAK ZARAUTZEN

Martxoak 1, larunbata.

TAILERRAK

INAUTERIETAKO MASKARAK ETA MAKILLAJEA.

Teilatupe gaztetxokoa, Gazte-lekuan, 12 urtetik 14ra bitarteko gaztetxoentzat.

LEHIAKETAK

MOZORRO LEHIAKETA. "Zona" Ostalaritza Elkarteak antolatuta.

Banakako eta taldeko mozorro lehiaketa.

1. saria: Play Stationa.

2. saria: DVDA

3. saria: Telebista

Sari berezia: bidaia zoragarria.

(Oinarriak Turismo Bulegoan eta "Zona"ko tabernetan eskuragarri)

BERBENA

Gaueko 11:00etatik 1:30etara:

Musika Plazan, berbena ITOITZ taldearekin.

GALDERAK:

- *Zein hiru ekitaldi egingo dira Zarautzen martxoaren 1ean?*
- *Zer egin behar da telebista lortzeko?*
- *Nora jo behar dut Lehiaketari buruzko informazio gehiago izateko?*
- *Noiz arte izango da musika plazan?*

1. HELBURUA- Informazio testu eta deskribapen sinpleen ideia nagusia uler dezake, batez ere testua azaltzen laguntzen duten irudiak baditu.

8. JARDUERA

Ikasleak testua irakurri ondoren, galderak erantzungo ditu.


URA

Izaki bizidun guztiek birsortzeko ura behar dute.

Urari "Naturaren odola" deitu zaio, bizitzarako ezinbesteko elementua delako.

Naturako ur kopurua

Ura Naturan dagoen elementurik ugariena da . Gure Lur Globoaren hiru laurdenak urez estalirik



daude.

Uraren egoerak

Ura hiru era edo egoeratan aurkitzen da:

Likido egoeran: ozeano, laku, aintzira, euri eta ibaietan.

Solido egoeran: mendietako elur iraunkorretan eta polo aldeetako izotzetan.

Gas egoeran: atmosferatan disolbatutako lurrin gisa eta hodeietan.

GALDERAK

- *Zergatik deitzen zaio urari "Naturaren odola"?*
- *Zein eratan aurki dezakegu ura Lur planetan?*
- *Non aurki dezakegu ura solido egoeratan?*
- *Zein da uraren proportzioa Lur planetan?*

IDATZIZKO ADIERAZMENA / IDAZMENA

1. HELBURUA- Lagunei zuzendutako ohar sinpleak idatz ditzake.

4. HELBURUA- Esaldi eta esamolde sinple eta bananduak idatz ditzake.

9. JARDUERA

Ikasleak, testua irakurri ondoren, posta elektronikoko mezu bat idatziko du iragarkiari erantzunez.

INSTITUTUKO ALDIZKARIKO TALDEAK

IKASLE BAT BEHAR DU
MAKETAZIO LANETARAKO

KAZETARITZA LANA GOGOKO BADUZU, BIDAL EZAZU MEZU
ELEKTRONIKO BAT HELBIDE HONETARA:

kazetari@euskalnet.net

Idatz ezazu mezu bat zure partaidetza eskainiz:

Nori:

Gaia:

Mezua:

2. HELBURUA- Non bizi den deskriba dezake.

5./6. HELBURUA- Postal labur eta sinplea idatz dezake.

10. JARDUERA

Ikasleak postal bat idatziko dio bere lehengusu/lagunari bere etxera gonbidatuz, bide batez bere herriaren eta etxearen deskribapena egingo du.

<hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>	<div data-bbox="1279 537 1398 636" style="border: 1px solid black; width: 73px; height: 47px; margin: 10px auto;"></div> <hr/> <hr/> <hr/> <hr/>
---	--